ELGOIBAR - 851. zenb. - XXI urtea - 2013-01-25

# B BARREN

TOKIKOM

# Euriteen ondorioa






## 2013-2014 AURREMATRIKULAZIOA
## Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
## Matrikulazio epea: urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra, biak barne.

### Elgoibarko Herri Eskolako ate ireki eguna: otsailak 2

### Elgoibar Arreituurre BHIko gurasoentzako bilera irekia, urtarrilaren 31n, 18:00etan, Arreiturre eraikinean.

**Elgoibarko Herri Eskola**
Kalamua, 8
Tel.: 943 74 08 79
E-posta: *012777aa@hezkuntza.net*

KALAMUA

EUSKO JAURLARITZA
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE eta IKERKETA SAILA

**Elgoibar Arreiturre BHI**
San Roke, 11
Tel.: 943 748 397
E-posta: *www.elgoibarbhi.net*

Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112
Faxa: ☎ 943 743 704
E-posta: *barren@elgoibarkoizarra.com*
Publizitatea: ☎ 943 743 704
E-posta: *barren.publi@elgoibarkoizarra.com*

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

**Argitaratzailea:**

ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

**Laguntzaileak:**

ELGOIBARKO UDALA

MENDAROKO UDALA

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: *barren@elgoibarkoizarra.com*.

**Auzokonposta praktikan Mendarozabalen**

Mendaro Zero Zabor taldeak autokonpostajea martxan jartzeko helburua ipini dio bere buruari. Zer da hau? Konposta egitea. Zer da konposta? Beroa darion deskonposizio biokimikoa naturalaz gai organikoetatik lortzen den humusa, hau da, lurrarentzako berezko ongarria. Ez da humusa zimaurrarekin konfunditu behar, lehenengoak lur heze usain atsegina baitu. Transformazio prozesuak beroa sortzen du, baina ez du usain txarrik hedatzen.

Horretarako, lan ahalmena gune batean konzentratzekotan, ekintza espazioa mugatu eta Mendarozabalgo auzoa aukeratu du proiektuari hasiera emateko. Hurrengo asteetan informazioa, boligrafoa eta zerrenda-paperak zintzilikatuko ditugu portal guztietan hala nahi duenak bere burua apunta dezan. Hamabi etxebizitza inguruen konpromisoa lortuz gero, gure kalkuluen arabera autokonpostaia edukiontzi bat jarri daiteke auzoan. Gure uste apalean halako bat martxan jarriz gero gai organikoen birziklapen autogestionatua Mendaro osora hedatzeko hazia geneukake.

Gaiaz gehiago jakiteko hona hemen esteka aberats hau: *http://www.gipuzkoazz.com/zero-zabor/konpostaia/konpostaiari-buruzko-multimedia-eta-estekak/*

Zintzo ibili.

**Mendaro Zero Zabor**

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3.Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: “Ikastolako irakasleak”, esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak…
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

# 22 enpresa sortzen lagundu du Debegesak Debabarrenean 2012an, eta horietatik lau Elgoibarren ireki dituzte

Jarduera ekonomiko horiek 33 lanpostu sortu dituzte

Debabarrenean 22 enpresa berri sortzen lagundu du Debegesa garapen agentziak 2012an, eta horietatik lau, Elgoibarren sortu dituzte. Enpresa Berrien Sorrerarako Zerbitzuaren barruan zabaldu dituzte enpresa horiek. 2011. urtean baino lau enpresa gutxiago izan badira ere, jarduera ekonomiko horiek bi lanpostu gehiago sortu dituzte: 33 guztira. Sektoreka begiratuta, 11 enpresa pertsonei zerbitzuak eskaintzen dizkieten enpresak izan dira; sei, merkataritza arlokoak; bi, beste enpresei zerbitzuak eskaintzen dizkietenak, beste bi ostalaritzakoak eta, azkena lehen sektoreko enpresa bat da.

Ekintzaile edo enpresa berrien sortzaileei dagokienez, 25 eta 35 urte bitarteko gazteak ziren %52, eta gehienak lanik gabe zeuden. Generoari erreparatuta, 2012an enpresa berri bat abian jarri dutenenetatik % 64 emakumeak dira. Debegesatik esandakoaren arabera, azken bost urteetan sortu diren enpresetatik % 83k jarraitzen dute lanean. Arduradunen iritziz, autoenplegua irtenbide ona da langabeziari aurre egiteko.


*Artxiboko irudia*

## Doako zerbitzua ekintzaileentzat

Debegesako Enpresa Berrien Sorrerarako zerbitzuak aholkularitza eta informazioa eskaintzen die, enpresa berri bat martxan jarri nahi duten eskualdeko herritarrei, doan. Debegesak agindu du 2013an ere enpresa berriak sortzeko lanari eutsiko diola, herritarren artean autoenplegurako jarrera eta ekintzailetasunaren balioak sustatzeko, egungo krisi ekonomikoa gainditzeko eta enplegua sortzeko ezinbesteko joera dela uste dutelako.

# Elkarretaratzea egin zuten martitzenean Elgoibarren, emakumeen kontrako beste indarkeria kasu bat salatzeko




Haizea Emakume Taldeak eta Emakumeen Asanbladak deituta, elkarretaratzea egin zuten martitzenean, emakumeen kontrako beste indarkeria kasu bat salatzeko. Domekan, 9:00ak aldera izan zen erasoa. Etxe atarian aurkitu zuen Ertzaintzak biktima, sudur eta ezpain aldean hainbat kolpe zituela eta Mendaroko Ospitalera eraman zuten. Emakumeak salatu du bikotekideak egin dizkiola zauriak. Atxilotua 27 urteko gizonezkoa da.

## Jokoa Euskal Herriko mus txapelketa


Mendaroko irabazleak

Euskal Herriko mus txapelketako Elgoibarko kanporaketa jokatuko dute bihar, Lanbroa tabernan. Parte hartu nahi duten bikoteek 20na euro ordaindu beharko dituzte, eta izena emateko epea kanporaketa hasi baino ordubete lehenago amaituko da. Tabernan bertan eman behar da izena. Joan zen barixakuan zortzi bikotek hartu zuten parte Mendaroko kanporaketan, eta Joxe Idoetak eta Jabi Alberdik osatutako bikoteak irabazi zuen. Herri bakoitzeko irabazleek otsailaren 23an jokatuko dute Gipuzkoako txapelketa Seguran, eta Euskal Herriko finala Agurainen izango da, martxoaren 9an.

## Jaiak Bosco eta IMH egunak

Arreiturre Institutuko eta Mekako ikasleak San Joan Bosco eguna ospatzen dihardute gaur. Goizean goiz hasi dituzte ospakizunak: Mintxetan krosa egin dute lehenik, eta ondoren, futbito eta sokatira txapelketak jokatu dituzte kiroldegian. Goiti-beherak ere izan dituzte, eta patata tortilla lehiaketa eta antzerkiak ere egin dituzte. Arratsalderako festa antolatu dute Gaztetxean.

Era berean, IMHko ikasle eta irakasleek IMH Eguna ospatu dute gaur. Hainbat kirol joko eta txapelketa jokatu dituzte goiz osoan zehar. Besteak beste, ping-pong, futbolin, txapel jaurtiketa eta sokatira egin dituzte. Indarrak berritzeko salda eta txorizoa prestatu dituzte eskolako atarian eta hamaiketakoa egin dute bertan. Horrez gain, Sahararen aldeko azoka solidarioa jarri dute, Saharautz elkartearen laguntzarekin.





*Iazko IMH eguneko argazkia ezkerrean, eta San Joan Bosco egunekoa eskuman.*

### 19 urteko mutil bat atxilotu zuten zapatuan, droga trafikoa leporatuta

19 urteko mutil bat atxilotu zuten ertzainek joan zen zapatu gauean, drogarekin trafikatzea leporatuta. Ertzaintzak jakinarazi duenez, hainbat substantzia toxiko aurkitu zituzten gaztearen poltsan: besteak beste, ketamina eta marihuana. Horrez gain, diru kopuru “handia” zeukala azaldu zuten agenteek.

### Hondakinei buruzko hitzaldia, otsailaren 7an

Gipuzkoa Zero Zabor elkarteko Jesus Mari Ikatzategik eta Joxe Mari Irazuztak hondakinen gaineko hitzaldia eskainiko dute otsailaren 7an. Hondakinek badute irtenbidea izenburupean, birziklapenari buruzko argibideak eskainiko dituzte. 19:00etan hasiko da hitzaldia, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

### Etxean konposta egiteko kanpaina

Debabarreneko Mankomunitateak etxean konposta egiteko kanpaina jarriko du martxan, eta hori azaltzeko informazio saioa eskainiko dute otsailaren 6an, musika eskolako auditorioan. Ordubete inguruko saioa izango da. Kanpaina honetan izena ematen duten bizilagunek konposta egiteko behar den guztia doan jasoko dute: konpostagailua, aireztagailua, konpostaketa gidaliburua eta parte hartzailearen etxean bertan formakuntza. Hitzaldia 19:00etan hasiko da. Informazio gehiagorako *www.debabarrenakonpostatzen.com* webgunea kontsultatu daiteke.

### Sortu alderdia eratzeko hirugarren batzarra, bihar

Sortu alderdia eratzeko prozesuan, hirugarren bilera egingo dute bihar. Oraingoan, antolaketa eredua landuko dute. 10:00etan hasiko da batzarra, Kultur Etxean.

# ELGOIBARKO ETA MENDAROKO UDALAK, ZENBAKITAN

**EAJ, PSE-EE eta Bilduren botoekin onartu zuen eguenean Elgoibarko Udalbatzararen Osoko Bilkurak 2013rako aurrekontua. PPk osoko zuzenketa aurkeztu zuen. Mendaron urtea amaitu aurretik onartu zituzten aurrekontuak, Bilduren botoekin. EAJ eta PSE-EE abstenitu egin ziren.**

**Ainara Argoitia**

Elgoibarko Udalak 12.553.991 euroko aurrekontua onartu du 2013rako. Azkeneko urteetako fondo foralaren bilakaera ikusita (likidazio negatiboak eta dirua bueltatu behar izana), 2012. urteko eta 2013ko aurrekontuetan Udalak fondo horren emaitza negatiboak aurreikusi ditu. Horrek eragina du aurrekontu osoarengan. Salbuespen hori kontuan izan gabe, oraingo aurrekontua 2012koa baino %1,66 handiagoa izango litzateke. Udalaren zorpetze maila, berriz, 233.023 eurokoa da. Berez, Espainiako Gobernuaren Aurrekontuen Egonkortasunerako Legeak zehazten du udalen zorra ezin dela sarrera ez finantzarioen %55,61 baino handiagoa izan, eta Elgoibarko Udalarena %1,66koa da.

* *Kontuan izan fondo foralari dagokionean irizpide aldaketa bat izan dela aurten aurrekontuak lotzeko orduan. Iazko irizpide berdinekin eginez gero, 2013rakoa handiagoa litzateke.*

- Elgoibarko Udal aurrekontua: 12.553.391 euro
- Aurrekontu bateratua (Udal aurrekontuari San Lazaro egoitza eta Kirol Patronatua gehituta): 15.013.106,30 euro
  - San Lazaro: 1.404.768 euro
  - Kirol Patronatua: 1.054.947 euro

### SARRERA AIPAGARRIENAK

| | |
|---|---|
| Zuzeneko zergak | 3.189.000 (%25,41) |
| Tasa eta beste sarrera batzuk | 2.098.000 (%16.72) |
| Transferentziak arruntak | 6.265.363 (%49,92) |
| **Sarrerak guztira** | **12.553.391,30** |

### GASTU AIPAGARRIENAK

| | |
|---|---|
| Pertsonal gastua | 3.842.000 (%30,61) |
| Ondasun arruntak eta zerbitzuak | 5.197.000 (%41,41) |
| - *Zaborrak, kale eta berdeguneen garbitze eta mantentze lanak* | 2.006.831 |
| Transferentzia arruntak | 1.932.000 (%15,39) |
| - *Debegesa, Debemen* | 166.000 |
| - *Kirol Patronatua* | 395.000 |
| - *Auzoetako jaiak* | 25.000 |
| - *Elgoizinema* | 28.000 |
| - *Musika Eskola* | 342.000 |
| - *Musika eta Dantza Federazioa EMUDAFE* | 161.000 |
| - *DEBABE euskaltegia* | 144.000 |
| - *Elgoibarko Izarra* | 174.000 |
| - *Gizarte Larrialdiko Laguntzak* | 108.000 |
| - *Bestelakoak* | 389.000 |
| Inbertsio errealak | 1.001.000 (%7,98) |
| **Sarrerak guztira** | **12.553.391,30** |

## KONPARAKETA URTEZ URTE

| | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 16.216.029,91 | 17.106.661,16 | 16.861.269,81 | 14.340.734,39 | 13.477.135,76 | 12.714.216,00 | 12.553.391,30* |

## 2013ko INBERTSIOAK

Inbertsioetarako miloi bat euro pasatxo lotu dituzte: 1.001.000. Horietatik 300.000 euro urtero egiten diren mantenimendu lanetarako izango dira, eta gainerakoak obra berrietarako. Honako hauek dira aurreikusten diren inbertsio berriak: Pedro Migel Urruzuno kaleko obren bigarren fasea (163.000), Pilar ikastetxea eraistea (200.000), EPA Helduentzako Alfabetatze Eskolan ikasgela berriak egitea Gabriel Kurutzelaegin (137.000) eta landa-lurren mantentze lanak (100.000).

Hirigintza Sailekoak dira inbertsio nagusiak, eta atal horretan BilduElgoibar udal taldeak hiru ekarpen egin zizkion Udal Gobernuari: Altzolarako inbertsio plana egitea, herrian aisialdirako gune bat estaltzea, eta Altzolan auzo-konpost egitasmoa abiatzea. Ekarpenak ontzat jo ditu Udal Gobernuak, baina aldaketa batzuekin. BilduElgoibarrek 100.000 euroko inbertsioa aurreikusten zuen Altzolarako inbertsio plana egiteko, baina azkenean inbertsio plan hori hiru urterakoa izango da, eta Altzolaz gain Sigma auzoa ere hartuko du (300.000 euroko inbertsioa izango da, hiru urtean egitekoa). Bestetik, estalpea egiteko 100.000 euroko inbertsioa aurreikusten zuen Bilduk, baina diru horrekin ezin daitekeela estaldura duinik egin arrazoitu du Udal Gobernuak eta proiektu hori 2014. urterako lagatzea erabaki dute azkenean.

Guztira, hamabost proposamen egin ditu BilduElgoibarrek, eta bi ez beste guztiak onartu dizkiote. Nazio eraikuntzarako Udabiltzarentzat eskatutako 15.000 euroko diru ekarpena eta nazioarteko elkartasunerako, Euskal Fondorako, eskatutako 20.000 euroko ekarpena dira atzera bota dizkiotenak.



## "Pozik gaude udal gobernuaren eta oposizioko talde nagusiaren adostasuna lortu dugulako"

EAJ PNV

GOBERNUAN

Pozik gaude 2013ko aurrekontuak onartzeko, gobernuaren (EAJ eta PSE) eta oposizioko talde nagusiaren (Bildu) arteko adostasun batera iristea lortu dugulako. Aurrekontuan, gobernuak aurkeztutako aurrekontu proiektuari Bilduk egindako ekarpen gehienak jaso dira, eta baita 2014 eta 2015erako konpromiso batzuk adostu ere. Elgoibarko Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa osasuntsua da, ez dago estutasunik. Hala eta guztiz ere, baliabideen eskasia bizi dugun garai honetan, aurten ere gerrikoa estutzea tokatu da. Murrizketak murrizketa, honako helburuak bidelagun izan ditugu gastuen lehentasunak zehazterakoan: lanpostuak eta ordainsariak bermatzea, herriaren dinamismoa bermatzea, gizarte prestazioak bermatzea, hezkuntza eta formakuntza arloetan inplikatzea, legealdi planeko ildoak betetzea, eta aurrekontuko kapituluen arteko orekak aurrezki nahikoa ahalbidetzea inbertsio berriak egiteko gaitasuna izateko. Aurten, Aurrekontu Egonkortasunaren 2/2012 Legeak finkaturiko hiru helburuen mugen barruan diseinatu beharra izan dugu aurrekontua, eta lortu dugu. Egonkortasunaren helburua, zorraren helburua eta gastuaren erregela bete dira. Aipatzekoa da Elgoibarko Udalaren zor biziak sarrera ez finantzarioen %1,66 suposatzen duela, legeak zehaztutako %55,61eko mugatik oso urrun. Foru Aldunditik jasotzen dugun foru fondoak azkeneko bost urteetan likidazio negatiboak eman ditu, hau da, dirua bueltatu behar izan da. Gauzak horrela, kontrako emaitza horiek aurreikusiz, udal honek zuhur jokatu du eta sarrerok azpitik kontsignatu dira. Inbertsioetarako milio bat euro inguru doitu dira. Horietatik, 300.000€ urtero egiten diren mantenimendu lanetarako dira, eta gainontzekoak obra berrietarako. Obra nabarmenenak hauek izango dira: Pedro Migel Urruzuno kaleko obren bigarren fasea, Pilar ikastetxea eraistea, CEPA Elgoibar HHIn egingo diren ikasgela berriak, eta landalurren mantentze lanak. Pilarreko erresidentziaren proiektuak geldialdi bat izan du aurreko urtean, gaur egungo Foru Aldundiak ez baitu konpartitzen hasieran hitzartu zen kudeaketa modeloa eta momentuz geldirik dago. Elgoibarko Udalak aldiz, proiektu hori aurrera eramateko lanean jarraituko du eta eraikina eraisteko 200.000 euroko partida txertatu du. Hala, Elgoibarko Udalak Aldundiarekin hartutako konpromisoa beteko du, eraikinik gabeko orubea ematea.

Gastu arrunta, aurreko urteetan bezala, estu-estu kontrolatzen saiatu gara. Baina gastu sozialari, behar bereziak dituztenei zuzentzen den gastuari, ez zaio murrizketarik aplikatu. Larrialdiko gizarte laguntzen (AES) partida adibidez %53 handitu da 2013rako.

## "Ongizate, Gazteria eta Berdintasun Saileko aurrekontua handitzea lortu dugu eta pozik gaude"

PSE-EE PSOE

GOBERNUAN

Ongizate Saileko buru gara gu, eta hor, lortu dugu aurrekontua handitzea. Horregatik pozik gaude gu. Horrexegatik babestu ditugu 2013rako aurrekontuak. Hamaika gauza egongo dira egiteko, baina gauden egoeran egonda, iruditzen zaigu langabezian daudenei eta baliabide eskasian dauden herritarrei laguntzea izan behar dela lehentasuna, zoritxarrez gero eta gehiago direlako. Zorionez, iaz baino diru partida handiagoa izango du horretarako, eta gainera, nik neuk garbi daukat diru gehiago beharko balitz, dagoen lekutik hartu beharko genukeela, herritarren ongizatea bermatzeak lehen mailako helburua izan behar duelako beti.

Beharbada, argiztapenak hobetu beharra izango du Elgoibarko kaleren batean, baina nik uste dut horrek itxaron dezakeela. Lehentasun kontua da, eta hor badira berehalako erantzun bat behar duten gaiak. Kirol patronatuarentzako laguntzak ere jaitsi dira apur bat, baina esandakoa: behar handienean bizi direnei laguntzea izan da eta da gure alderdiaren lehentasuna.

Zentzu horretan hor daukagu Pilarreko egoitza. Populazioa zahartzen ari da, eta gure aiton-amonentzako onena lortu behar dugu. San Lazaro egoitza eta eguneko zentroa ditugu gaur, baina bietan daude hobetu beharreko gauzak, batez ere eguneko zentroan. Pilar ikastetxearen orubean eraiki asmo dugun adinekoentzako zentroak aukera emango liguke gaur kanpoko zentroetara joan behar izaten duten elgoibartarrei lekua egiteko. Espazio handiagoa izango da, erosoagoa, eta gaur ez dutena izango dute: kanpora irten eta haizea hartzeko aukera. Horregatik guztiagatik, Pilar eraikina eraistea da orain momentuan gure lehentasuna, baina Eusko Jaurlaritzak eta Bilduk emango dutenaren menpe gaude hein batean. Arantzatxo hori daukat.

Elgoibarko Udalak ez dauka defizitik gaur egun. Maileguak eskatuta ditu, jakina, baina dirua oso ondo kudeatzen da, eta hori ere garrantzitsua izan da aurrekontuak babesteko orduan. Enplegua sustatzea da Elgoibarko Udalaren helburu nagusia gaur gaurkoz, eta hala, erreminta makinaren alorreko enpresentzako eta langabezian daudenentzako diru-laguntzak handitu ditugu zertxobait, eta desjabetzeetarako eta genero indarkeriaren biktima direnentzako diru bat gorde ere bai. Espero dut erabili beharrik ez izatea.

## “Ondo dakigu zeri eman diogun baietza, eta gure proposamenak bete daitezen jardungo dugu”

OPOSIZIOAN

Bilduelgoibar Udal taldeak baiezko botoa eman die Udalaren aurrekontuei.

Esan beharrik ez dago ez direla guk lortu nahi ditugun aurrekontuak, baina herritarrekin batera egin dugun lanaren ondorio Udal kudeaketan bide eta ikuspuntu berriak txertatzea lortu dugu.

Legealdi hasieratik egin dugu aurrekontu partehartzaileen alde, eta aurten bigarrenez horien aldeko apustua egin dugu, Udal Gobernuak kontrako bidea jorratzen jarraitu duen arren. Bilerak egin ditugu herritarrekin eta elkarren ekarpenekin EAJri aurkeztutako proposamen sorta aberastea lortu dugu.

Aurtengo aurrekontu partehartzaileei dagokienez, hamabost proposamen zehatz aurkeztu genizkion EAJri eta horietatik hamahiru jaso dira behin-betiko aurrekontuan. Horra hor aurrekontuei baiezko botoa emateko arrazoia. Esan bezala, hobetzeko asko duten aurrekontuak diren arren, txertatutako hamahiru proposamen horiek bestelako norabide bat txertatu diete aurrekontuei. Besteak beste, inbertsioak proposatu ditugu hirigintza arloan auzoetako egoera hobetu eta herri erdian gune estali bat eraikitzeko, herriko kultur sortzaileen lana sustatzeko partida sortu dugu, edota Udaleko immigrazio-plana osatzeko partida sortu dugu.

Baiezko boto horrek, baina, ez dizkigu orain artean ikusitakoak ahaztaraziko: besteak beste, liberazioen gehiegikeria, lorategien mantenuan gastatzen den astakeria, Emugi proiektuan alferrik (emaitzei erreparatu besterik ez dago) xahutzen den dirutza, kale garbiketa edo propagandako partiden erabilera zalantzagarria. Era berean, udal langileen lan-baldintzetan ematen ari diren atzerakadak oso larriak iruditzen zaizkigu eta ez gatoz bat udal langileen eta Udalaren arteko lan-harremana kudeatzeko moduarekin.

Adostasuna dugu helburu; guk eraiki nahi dugun herri ereduaren mesedetan den bitartean, noski. Horretarako ahalegina egin dugu orain arte, eta horretan jarraituko dugu; gurekin batera aurrekontu partehartzaileak osatzen lan egindako herritarrei hori eta gehiago zor baitiegu. Horrekin batera, onartu berri diren aurrekontuen jarraipen zehatza egiteko konpromisoa hartu dugu. Baiezko botoa ez da paper zurian botatako sinadura. Ondo dakigu zeri eman diogun baietza, eta guk egindako proposamen bakoitza bete dadin zorrotz jardungo dugu.

## “Elgoibarko PPk osoko zuzenketa aurkeztu die aurrekontuei”

OPOSIZIOAN

Ez da erraza horren lerro gutxitan 2013ko aurrekontuen inguruan PPk daukan jarrera azaltzea, baina saiatuko naiz elgoibartarrei jarrera horren oinarriak behintzat ondo azaltzen. Elgoibarko PPk osoko zuzenketa aurkeztu die aurrekontuei, eta era berean, finantziazio handiagoa eskatzen duten proposamenak egin ditu (Proposamen horien zenbatekoa 277.325,50 eurokoa da). Nire babesa behar izan ez arren, alkateak agertu didan hizketarako prestutasuna eskertu beharra daukat, nahiz azkenean ezin izan den bete. Aurrekontu berriak egitea eskatu dut, gure alderdia ez datorrelako bat ez helburuetan eta ezta lan-idoetan ere, eta aurrekontuetan derrigor jaso beharreko zenbait puntu badaudela uste dugulako. Hiru dira PPk egindako proposamen nagusiak: diru-partida berri bat elgoibartar langabetuak aldi baterako kontratatzeko, garapena sustatzeko gizarte zerbitzuetarako aparteko diru partida bat sortzea eta Euskaditik kanpora Elgoibar herriaren izenean lehiatzen diren atleta eta kirol talde elgoibartarrentzako partida bat sortzea.

PPk egiten dituen gainerako proposamenak gehiago dira diru-laguntzak eta sail ezberdinetako programak garatzeko diru partidak handitzeko. PPk proposatutako igoerak dezentekoak dira, eta gastu arrunten doitze handiago baten bidez eta gaur egungo egoeran PPk horren beharrezko ikusten ez dituen programa jakin batzuk kenduta finantzatzen dira. Tarte labur honetan ez daukat denak zerrendatzeko lekurik, baina nahi duenak *www.ppelgoibar.com* helbidean kontsulta ditzake. Edozelan ere, eta lehen esan bezala, dirutan 277.325.50 euro dira.

Gobernu batzordetik kanpora dagoen oposizioko alderdi bakarra izanda, jakin badakit nik egindako proposamenek ibilbide laburra dutela eta zaila dutela aurrera egiten, baina hala ere, ez naiz proposamen horiek egin gabe geldituko. Proposamen positiboak direla iruditzen zait eta bideragarriak ere bai, finantziazioaren ikuspuntutik begiratuta.

Proposamen hauek eginda ez naiz liskar edo polemika bila ari. Gauzak ikusteko eta planteatzeko beste modu bat aurkeztu nahi dizuet bakarrik, Gobernu batzordeko beste edozein talderena bezain errespetagarria. Zenbait gaitan batzuekin ados egon arren, beste zenbait gaitan bat ez gatozelako.

# Mendaroko Udal aurrekontua 2012koa baino %0,43 handiagoa da: 2.171.300 eurokoa

Mendaroko Udal Aurrekontua 2.171.300 eurokoa izango da aurten, iaz baino %0,43 handiagoa. Sailka aztertuta, Zerbitzuen Sailak jasoko du diru gehien: 458.400 euro hain justu ere (aurrekontuaren %21). Gizartegintzara bideratuko da aurrekontuaren %18. Iaz, 348.750 jaso zituen Gizartegintza Sailak, eta aurten zertxobait gehiago: 382.600. Gainerako Sailetan murrizketak izan dira. Kulturan, esaterako, iaz baino 6.300 euro gutxiago inbertituko dira. Iaz, 312.000 euro bideratu ziren Kulturara, eta aurten, berriz, 305.700 (aurrekontuaren %14). Nekazaritzan, bestalde, jaitsiera nabarmena izan da. Dirutan, 19.500 eurokoa.

## 2013ko aurrekontua, sailka

1 Administrazioa: 216.300 (%10)

2 Zerbitzuak: 458.400 (%21)

3 Kultura: 305.700 (%14)

4 Gizartegintza: 382.600 (%18)

5 Nekazaritza: 34.100 (%2)







Inbertsioak: “Proiektu txiki” eta “behar-beharrezkoak” aurreikusten dira. Guztira, 54.700 euroko bideratuko dira inbertsioetarako, aurrekontu arruntak lagatzen duena.

- Informatika ekipamendua: 5.000
- Irisgarritasun Planaren garapena: 20.000
- Hirigintzako obra txikiak. 16.700
- Brigadako erreminta inbentariagarriak: 3.000
- Nekazal bide konponketak: 10.000 *

* OHARRA: 2012an eta 2013an egin beharreko bide konponketa guztiak 2012an bukatu zituzten. 79.500 euro inguru kostatu ziren obra horiek.

| SARREREN AURREKONTUA | |
|---|---|
| Zuzeneko zergak | 462.500 |
| Zeharkako zergak | 40.000 |
| Tasak eta bestelako sarrerak | 261.900 |
| Transferentzia arruntak | 1.361.100 |
| Ondare sarrerak | 20.300 |
| Inbertsio errealen inorenganaketa | 6.000 |
| Kapital transferentziak | 19.500 |
| Sarrerak guztira | 2.171.300 |

| GASTUEN AURREKONTUA | |
|---|---|
| Langileen ordainsaria | 539.100 |
| Ondasun arrunten eta zerbitzu erosk. | 1.258.275 |
| Finantza gastuak | 10.000 |
| Transferentzia arruntak | 84.125 |
| Inbertsio errealak | 54.700 |
| Finantza pasiboak | 225.100 |
| Gastuak guztira | 2.171.300 |

# Erretratu zaharra

Aste honetako erretratu zaharrak Maria Arrillagak ekarri ditu BARRENera. 1968an jaiotako elgoibartarrek kinto bazkaria egingo dute bihar, eta horren harira, bi argazki hauek ekarri ditu. 68an jaiotakoak ageri dira argazkiotan. Goiko argazkia 73-74 ikasturtekoa da, eta Ikastolan aterata dago. Behekoa, aldiz, Pilar ikastetxeko argazkia da, 77-78 ikasturtekoa. Gogora ditzagun gaztetxo horien izenak.



**1973-74**

Goian: Patxi Etxeberria, Iñaki Elizburu, Elena Ormazabal, Andoni Murga, Ane Zabala, Antonio Arriola, Delia Irizar, Sebas Etxabe, Idoia Txurruka, Mari Juli Konde (irakaslea).

**Erdian:** Maria Arrillaga, Gaizka Argarate, Maite Zelaia, Aitor Etxeberria, Itziar Gil, Alex Sota, Iñaki Uribe, Iñaki Zabala, Anton Santolaya, Ignacio Mugerza, Mari Lourdes Zigorraga, Jorge Arriola. **Behean:** Fran Rezola, Arantza Kortabitarte, Antxon Gurrutxaga, Kristina Albizu, Agurtzane Larrañaga, Loredi Goñi, Elizabete Gurrutxaga, Maite Iriondo.

**1977-78**

**Goian:** David Blanco, Felix Astigarraga, Xabier Hernaez, Felix Garaia Abad, Alex Garate, Ion Oñederra, Yolanda Viñaras, Begoña Juaristi, Javier Barandela (†), Andoni Ulazia. **2. ilaran:** Pili Crespo, Maria Jesus Fernandez, Alberto Riaño, Luciano Riaño, Ernesto Rodriguez, Daniel Gomez, Jaione Astigarraga, Andres Agirre, Mariano Alvarez, Maria Pilar Alonso (irakaslea). **3. ilaran:** Eduardo Mugertza, Oscar Muñoz, Natalia Coronado, Eva Mekolalde, Ana Gonzalez, Idoia Barrenetxea, Anton Santolaya, Pilar Arriola, Ana Peñalba, Silvia Gabiola, Jose Javier Garcia. **Behean:** Oscar Odriozola, Jose Manuel Hernandez, Maria Anjeles Gabilondo, Maria Arrillaga, Eduardo Urbiola, Miguel Anjel Arrieta, Andoni Etxeberria.



# Elgoibarren domeka iluntzean izan zen luizi batek nahasmen handia sortu du egunotan

## Mendi magala sendotzeko lanengatik herri barrutik bideratu dute trafikoa



Domeka iluntzean, 19:00ak aldera, gertatu zen luizia 634 errepideko 58. kilometroan, eta geroztik harriak etengabe egon dira jausten inguru horretan. Ezbeharra gertatu eta berehala, 634 errepidea itxi egin zuten agintariek bi norabideetan, eta gau osoa lanean eman zuten Gipuzkoako Foru Aldundiak kontratatutako langileek. Beharginek eurek jakinarazitakoaren arabera, 5:30ak alderako garbi zuten errepidea, baina astelehen goizean lurra mugitzen hasi zen berriro, eta ondorioz, eten egin behar izan zituzten lanak. Asteartean ekin zioten berriro lanari eta aste osoa igaro dute mendi ezponda hori sendotzeko lanean. Edizio hau ixteko orduan, errepide nagusiak itxita jarraitzen zuen, eta aste osoan halaxe izango zutela ohartarazi zuen Alfredo Etxeberria alkateak.

Astelehen goizean, harriak etengabe jausten ari zirela ikusita eta luizia izan zen gaineko txabolak ere behera zetozela ikusita, Elgoibarrera bertara ez zetozen guztiei A-8 autobidea erabiltzeko eskatu zien Udalak, prentsa ohar baten bidez, eta baita ahal dela herri barruan autorik ez hartzeko ere. Era berean, Santa Klarako autobus geltokia Trenbide kaleko tren geltokiaren ondoan jarri zuten astelehen goizean, aldi baterako. Gertakari honek ikusmin handia sortu du herrian.



*Goiko argazkian, 634 errepidea astelehen goizean. Ezkerrekoan, langileak lanean, astearte goizean. Hirugarrenean, herritarrak luiziari begira.*





## INMA MUGERTZA - Geologian Doktorea

Naturak ustekabean harrapatu gaitu berriz ere. Azken eguneko euriteen ondoren, gehienok Deba ibaian izan dugu arreta jarrita. Izan ere, urtarrilaren 14tik 16ra bitartean Elgoibarren 128 l/m²-ko prezipitazioa jaso zen, eta hori, mutur-muturreko datua ez bada ere, aintzat hartzeko modukoa da. Are gehiago, ibaiaren ur-maila azken hemezortzi urtean (datuak daudenetik) lortutako maila altuenera (*www.gipuzkoa.net*) heldu zela jakin eta gero (Altzolako aforo-estazioan ur-maila 3,96 metrora heldu zen 15ean). Hala ere, ezustea ez zen ibaitik etorri, menditik baizik, luizi modura.




Mendia, bat-batean, erori egin zen igande arratsaldean, Pilar Ikastetxearen eta Santa Klarako bidegurutzearen artean. Ezponda osoa errepideraino heldu zen, landaretza guztia arrastaka eramanez. Ondoren, ordu batzuk beranduago, goikaldeko baratzeetako txabolak eta Santa Klaratik Urazandira doan bidezidorra ere amildu egin ziren. Hala ere, ez da inguru horretan luizia gertatzen den lehen aldia. Entzuna diet etxekoei, garai batean, Elgoibartik Markinara joaten zen "korreoak" behin baino gehiagotan buelta eman behar izan zuela bertan, menditik eroritako harriek bidea ixten zutelako. Guk geuk ere maiz ikusi ditugu harriak erortzen edo espaloia harriz estalita, inguruaren ezegonkortasunaren adierazle.

Herrian, "arbelen" eragina dela entzun izan dut, xaflatutako harri gris ezegonkorrarena alegia. Baina, Elgoibarren ez dago arbelik: harri bolkanikoak bai (Karakaten, Kalamuan...), kareharriak ere bai (Altzolan...), baina bereziki hareharriak eta lutitak daude txandakatuta (flysch-a) eta tuparriak. Azken horiek dira hain zuzen ere arbelarekin nahasten direnak, kolorearengatik eta xafla itxurarengatik batez ere. Edozelan ere, Elgoibarko aukera geologikoa ikusita, eta luizia leku berezi horretan gertatu denez eta ez beste inon, tokiaren ezegonkortasunaren zergatiaz galdetzea da ohikoena; zergatik gertatu da hor? Beste toki batzuk baino ezegonkorragoa da? Zergatik?

Hiru dira ezponda baten egonkortasuna baldintzatzen duten ezaugarri nagusiak: aldapa, litologia (harri mota) eta ura.



- Aldapa: zenbat eta malda handiagoa, orduan eta ezegonkortasun nabariagoa.
- Litologia: harri bakoitzak bere ezaugarriak ditu (gogortasuna, iragazkortasuna, geruzapena...), eta ondorioz, batzuk beste batzuk baino egonkorragoak dira. Iragazkortasun, gogortasun eta plastikotasun ezberdineko geruzak tartekatzen direnean, ezegonkortasuna handitu egin ohi da, zenbait baldintzatan geruza batzuk besteen gainean irrista daitezke eta. Hau da flysch-aren kasua.
- Ura: luizi gehienak eurite handien ondoren sortzen dira, beti ere aldapak eta litologiak laguntzen badute. Geruza ezberdinak txandakatuta dauden kasuetan, ura geruza iragazkorrenetatik barneratzen da, eta xaflen arteko mugimendua errazten du. Bestalde, harriaren poroetan ere sar daiteke, harri-masaren pisua igoz eta ezegonkortasuna areagotuz.

Pilar Ikastetxearen eta Santa Klarako bidegurutzearen arteko ezpondak aipatutako hiru baldintzak betetzen ditu: aldapa handia (70º-koa baino aldapa handiagoa); lutitak eta hareharriak txandakatuta daude (flysch-a) eta azken egunotan euria barra-barra bota du. Horrez gain, mapa geologikoak erakusten duenez (Eibar 63-III, EVE), inguru horretan aldaketa litologiko garrantzitsu bat dago, hau da, harri batzuen eta beste batzuen arteko muga dago hor, Behe Kretazeoko eta Goi Kretazeoko harriak elkartzen dira (eskeman gorriz adierazita). Alde batean flysch beltza (Behe Kretazeoa) eta bestean tuparriak (Goi Kretazeoa) daude, trantsizio-zona da, beraz, baina muga zehaztea ez da erraza.




Flysch-a bera osatzen duten harriek ezegonkortasun handia ematen diote lur-sailari (Zumaia-Getaria artean gertatzen den moduan). Trantsizio-zona izateak, gainera, ezegonkortasun hori handitu lezake.

Edozelan ere, azterketa geoteknikoak argitu beharko ditu inguruaren egonkortasun-baldintzak eta horren arabera zehaztu beharko dira hartu beharreko neurri zehatzak.

**MATRIKULALDIA ZABALIK**

Izena emateko epea otsailaren 15era arte.

Etor zaitez eta informazio guztia emango dizugu.

Kalebarren plaza 2
Tel.: 943 742 731
elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net

**Nik maite dut euskara**

# OSASUN GIDA

## OPTIKAK

***65\07***
**IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA**

Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00
San Bartolome, 10
Elgoibar
Tel: 943 743 734

***183\12***
**UZURI**

- Optometria
- Kontaktologia

Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00
San Frantzisko, 21
Elgoibar
Tel: 943 740 359

## MASAJISTAK

***22\12***
**VICTORIA IRAEGI**

- Esku terapiak
  - Kiropraxia
  - Dranatzaile linfatikoa
  - Osteopatia
  - Kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea)

Astelehenetik Ostiralera:
8:00 / 14:00

San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea) - Elgoibar
Tel.: 943 740 770

## HORTZ KLINIKAK

***171\12***
**LEKU EDER**

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta inplanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurrentzako tratamenduak
- PADI

Elena Herrero Lobo
Aita Agirre enparantza, 5 behea - Elgoibar
Tel: 943 530 053 - *lekueder@infomed.es*

## OTORRINOLARINGOLOGIA

***183\12***
**UZURI**

- Entzumen protesia BERRIA!
- Tapoiak neurrira (uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...)
- Audiometriak
- Audifonoak
- Tonometria

Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00
San Frantzisko, 21
Elgoibar
Tel: 943 740 359



*Abenduan...*

## JAIOTAKOAK



Nahia Malvar Ibañez
Abenduak 13
Oscar eta Silvia



Malen Markiegi Idiakez
Abenduak 2
Asier eta Esther



Markel Prieto Perez
Abenduak 14
Jose Miguel eta Ana



Beñat Konde Agirrebeña
Abenduak 22
Egoitz eta Leire

Diego Gonzalez Jurado
Abenduak 4
Diego eta Maria Luisa

Yara Barhone Ahagan
Abenduak 5
Jamal eta Dounya

Hinas Regueiro Gerrikaetxeberria
Abenduak 18
Oscar eta Nerea

Markel Olasolo Gabilondo Abenduak 22
Aitor eta Amaia

Markel Jato Corona
Abenduak 20
David eta Carolina

Mohammed Hakmaoui
Abenduak 24
Hicham eta Ouafae

Assia El Fathi
Abenduak 24
Mustapha eta Maryam

Eider Alegria Etxaniz
Abenduak 23
Juan Antonio eta Lorea

Goizane Mazariegos Etxeberria Abenduak 29
Javier eta Miren

Jaiotakoen atalean zure seme-alabaren erretratua jarri nahi baduzu, hilabeteko lehenengo astelehenerako ekarri behar duzu erretratua BARRENeko erredakziora edo *barren@elgoibarkoizarra.com* helbidera bidali. Jaiotakoen argazkia jartzeagatik Elgoibarko Izarrako bazkideek 3 euro ordaindu behar dute eta gainontzekoek 4 euro.

## HILDAKOAK

Maria Lete Gabilondo • 95 urte • Abenduak 4
Maria Juaristi Arostegi • 90 urte • Abenduak 6
Ramon Zapata Moya • 88 urte • Abenduak 9
Nieves Gabilondo Agirre • 90 urte • Abenduak 10
Mari Karmen Bizkarrondo Artetxe • 76 urte • Abenduak 10
Jose Alberto Gurrutxaga Konde • 62 urte • Abenduak 10
Leandra Avila Moreno • 85 urte • Abenduak 13
Juan Jose Ibañez de Garayo Ibañez de Garayo • 77 urte • Abenduak 16
Kerman Moreno Iriondo • 43 urte • Abenduak 20
Celia Barrenetxea Arce • 77 urte • Abenduak 18
Lucia Ormaetxea Iñarra • 91 urte • Abenduak 25
Modesta Fernandez de Jauregi Saenz de Ugarte • 102 urte • Abenduak 25
Eugenio Alberdi Arriola • 89 urte • Abenduak 28


ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua OSOA eta 24 ORDUKOA

T A N A T O R I O A



KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK

NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko zerbitzuak

Erietxe zentruetan
zerbitzuak

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 / (Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekoa) 635 756 295




II. URTEURRENA

## JESUS GARAIALDE MUGERZA

2011ko urtarrilaren 31n hil zen.

*Gure bihotzetan zaude,*
*alaitasunak gida gaitzala.*

Zure emazte, seme eta gurasoek.



# Margotzen hasi zenetik gaur egunera arteko lanen erakusketa zabalduko du gaur Gemma Monreal margolariak

Otsailaren 17ra arte egongo da zabalik erakusketa, Elgoibarko Kultur Etxean

Gemma Monreal margolari elgoibartarrak atzera begirako erakusketa inauguratuko du gaur. 18:30ean zabalduko du erakusketa, eta otsailaren 17ra arte egongo da ikusgai Kultur Etxean. Margotzen hasi zenetik gaur egunera arteko lanak bildu ditu Monrealek. 60 bat koadrok osatzen dute bilduma, eta bere bizitzako etapa desberdinak bereizten dira artelan horietan.



### Margoari lotuta

Margoari lotuta bizi izan da Gemma Monreal umeumetatik. 18 urterekin egin zuen estreinako erakusketa, eta ordutik, 50 erakusketa baino gehiago egin ditu. Luziano margolariarekin ikasi zuen Gemmak margotzen, eta hari esker gauza garrantzitsuak ikasi zituela aitortu du. Herritar guztiak gonbidatu ditu erakusketetara, eta bereziki, etxeko txikiei egin die deia. Monrel¡alen ustez, koaderno bat eta lapitza hartuta gauza handi eta ederrak egin daitezke, eta konstantzia apur batekin ametsak errealitate bihurtzen dira. Mezu hori transmititu nahi du: "Margolari izatea konstantziak eman didan saria da", adierazi du.

## Otsailaren 2an irtengo dira santa eskean Mendaron eta Elgoibarko kaleetan

Etxegiña taldekoak otsailaren 2an irtengo dira santa eskean, Elgoibarren. 9:00etan batuko dira bolatokian, eta bi taldetan banatuta koplatuko dituzte Elgoibarko kaleak. Urazandiko La Union elkartean egingo dute hamarretakoa, eta Errosario kaleko Ama Birjinari salbea abestu ostean, Baltasar elkartean egingo dute bazkaria. Entseguak datorren martitzenean eta eguenean egingo dituzte Kultur Etxeko ganbaran, 20:00etatik aurrera.

Mendaron ere, egun berean irtengo dira santa eskean. 8:30ean abiatuko dira Herriko Enparantzatik, eta Mendaroko kale eta baserri auzoak koplatuko dituzte, hiru taldetan banatuta. Asier Agarre, Aitzol Urain, Gregorio Larrañaga 'Mañukorta' eta Beñat Lizaso izango dira bertsolariak. Batzen duten dirua Ameikutz musika eskolari emango diote aurten. 15:00ak aldera arte jardungo dute kantuan, eta gero, Aizpen bazkalduko dute.



### Elgoibarko baserrietan, otsailaren 4an

Elgoibarko Izarrako kideak Santa Ageda bezperan irtengo dira baserriz baserri santa eskean. 14:30ean batuko dira Kalegoen plazan, eta bi taldetan banatuta koplatuko dituzte Elgoibarko baserri auzoak. Interesatuek hilaren 28ra arteko epea dute izena emateko, 943 741 626 telefonora deituta edo *elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com* helbidera idatzita.

### 'Confidencias de un futbolisto' bakarrizketa aurkeztuko du Zuhaitz Gurrutxagak

Zuhaitz Gurrutxaga futbolariaren beste aurpegi bat ezagutzeko aukera izango da datorren barixakuan. Lehen mailan jokatu zueneko istorio eta abenturak bildu ditu aiastiarrak, eta *Confidencias de un futbolisto* bakarrizketan kontatuko ditu. Herriko Antzokian izango da ikuskizuna, 20:30etik aurrera. Sarrerak salgai daude dagoeneko, Mahats ardandegian eta *http://barrabarra.eu/events/buy/431* webgunean, lau euroan.



# Inauteriei buruzko hitzaldiarekin ekin die Haritz dantza taldeak 40. urteurreneko ospakizunei

Koko-jantzien dantza egingo dute otsailaren 9an

Ospakizun urtea izango da 2013a Haritz Euskal Dantzari Taldearentzat. 1973an sortu zuten taldea, eta aurten 40 urte egingo ditu. Hori dela eta, hainbat ekitaldi prestatu dituzte, urteroko ekintzez gain. Aste honetan bertan izan da lehenengo ekintza: Oier Araolaza Kezka dantza taldeko eta *dantzan.com* webguneko arduradunak *Mozorrotzea ez da disfrazatzea* izeneko hitzaldia eskaini du. Neguko festak, mozorrotzea, disfrazatzea eta beste hainbat kontu izan zituen hizpide Araolazak. Horri lotuta, Koko-dantzak antolatu dituzte otsailaren 9rako. Eibarko Kezka dantza taldeak inauterien aurreko zapatuan egin ohi du koko-eskea Eibarko baserrietan, eta aurten Elgoibarren arituko dira, Mauxitxa Txarangarekin batera eta Haritzeko kideekin batera. Apirilerako Zuberoara irteera antolatu dute Elgoibarko Izarrarekin batera, hango Maskaradak ikusteko, eta udazkenean dantza jaialdi bat egingo dute, 40 urte hauetan bidelagun izan dituzten taldeekin.

Urteroko ekintzak ere ez dituzte albo batera lagako, eta aurten ere hainbat dantza jaialditan ikusiko ditugu Haritz dantza taldekoak: Nazioarteko Folklore Jaialdian, Trinitateetan, Galegoen festetan, San Bartolome eguneko soka-dantzan, San Migeletan zein Errosarioko ezpata-dantzan.



## ‘Ezekiel noraezean’ liburuari buruzko hitzaldia eskaini zuen Jasone Osorok Elgoibar Ikastolan



Idazleak Eskolan egitasmoaren barruan, Elgoibar Ikastolara egin zuen bisita Jasone Osoro idazle eta kazetari elgoibartarrak. DBH2ko ikasleekin batu zen Osoro, eta *Ezekiel noraezean* liburuaz egin zuten berba. Osorok hainbatetan irabazi izan du ikastetxeetan egiten den JUUL kanpaina, gaztetxoen artean literatura eta irakurketa sustatzea helburu duen kanpaina. Aipatutako liburuari buruz hainbat xehetasun emateaz gain, ikasleei idazteko zenbait aholku eman zizkien.

### Euskal dantzen ikastaroa, urtarriletik martxora

Euskal dantzen ikastaroa antolatu dute Haritz dantza taldeak eta Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolak. Urtarriletik martxora arte izango da. Fandangoa, arin-arina eta herri dantzak ikasteko aukera egongo da, besteak beste. Ikastaroak 30 euroko prezioa dauka, eta astean bi saio eskainiko dituzte. Interesatuek musika eskolan bertan eman dezakete izena, arratsaldez (943 742 145). Informazio gehiago nahi izanez gero, ondorengo telefono zenbakira deitu daiteke: 661 151 855 (Lurdes Odriozola).

# Partida bakar bat galdu gabe bukatu du ligako lehen itzulia Concepto Egile areto futboleko taldeak

Sailkapenean hirugarren den Colo-Colo taldearen kontra jokatuko du asteburuan



Ggogor dabil Concepto Egile areto futboleko taldea. Areto futboleko Bigarren B mailan jokatzen du Concepto Egile Debabarrenako taldeak, bigarren multzoan, eta ligako lehenengo itzulian ez du partida bakar bat ere galdu. Asteburuan, Pinseque taldearen kontra lehiatu dira kanpoan, eta erraz nagusitu dira (3-6). Orain arte jokatu dituzten hamabi partidetatik bat ez beste guztiak irabazi dituzte eta bestea berdindu, eta 34 punturekin lider daude, Zierbena bigarren sailkatuarengandik sei puntura. Badira kontuan hartzeko beste bi datu ere: gol gehien sartu dituen taldea da Concepto Egile (64), eta gol gutxien jaso dituena (18).

Sei multzo daude areto futboleko Bigarren B mailan, eta 98 taldek jokatzen dute. Bakar bat ez da zuzenean igotzen mailaz, baina. Multzo bakoitzean lehenengo sailka tzen direnen eta bigarren egiten duten lau onenen artean erabakitzen dira igoerak, ligaxka antzeko batean. Partida horiek maiatzaren 18an eta 25ean jokatuko dira, eta ilusioz dira Concepto Egile taldekoak.

Hamabi partida gelditzen dira liga amaitzeko, eta horietatik lehenengoa aste buru honetan jokatuko dute Zaragozan, Colo-Colo taldearen kontra. Sailkapen nagusian hirugarren dago Colo-Colo, puntutan Pinseque taldearekin berdinduta. Lehenengo itzulian, etxean jokatu zuten partidan, Concepto Egilek 3-1eko emaitzarekin irabazi zien zaragozatarrei.

## Arrieta eta Galartza nagusitu dira San Anton txapelketan, finalean Goñi eta Txurrukari irabazita




Ioritz Arrietak eta Kerman Galartzak jantzi zuten barixakuan San Anton pilota txapelketako txapela, finalean Mikel Goñi eta Iker Txurrukari 22-11ko emaitzarekin irabazita. Ikusmin handia sortu zuen partidak. Hamazazpi urte ziren Mikel Goñik San Anton pilota txapelketa irabazi zuela eta Ikastolako frontoia bete egin zen finalean. 22 urtez azpikoetan, berriz, Arrieta eta Ansotegik hamaika tantoan utzi zituzten Ugalde eta Imaz.

# Butano-desafioa jokatuko dute bihar Mendaron, 11:30etik aurrera

Lizarperako bidea 11:00etan itxiko dute autoentzat




Butano-desafioa jokatuko dute bihar Mendaron. Udaletxe aurrean butanoa sorbaldan hartu eta Lizarpe aineraino nor azkarrago iritsi lehiatuko dira Unai Salegi *Sarube*, Andoni Zubiaurre *Gorixo* eta Jurdan Ezenarro. 4,6 kilometro inguruko bidea da, eta bidean, %10eko desnibela gainditu beharko dute. Tartean, Alkorta baserritik gora, baita %32ko pendiza ere bai. 11:30ean irtengo dira udaletxeko plazatik. Joxe Angel Sarasola herri kiroletako esatariak egingo du apustuaren kontakizuna, Lizarpetik. Apustuak ikusmin handia sortu du, eta auto asko pilatu daitezkeela-eta, 11:00etan bidea itxiko dute Garagartzan. Era berean, apustulariek eurek jakinarazi dute Alkortatik gora orotariko ibilgailuei edo 4X4 ibilgailuei bakarrik lagako dietela igotzen. Izan ere, azken egunetako euriteen ondorioz, lurra bustia dago oso, eta auto txikiei Lizarperaino igotzen lagaz gero, nahasmen handia sortuko litzatekeela uste dute apustulariek. Edozelan ere, Alkortaraino autoan igo nahi dutenei eskaera bat egin diete: autoak partekatzeko, bide bazterrean ahalik eta auto gutxien pilatu daitezen.

## Mendia eta sagardotegia uztartuko dituen irteera antolatu du Morkaikok

Aiako Harria parke naturalera irteera antolatu du Morkaikok otsailaren 23rako. Irteera berezia izango da, izan ere, menditik jaitsi osterako bazkaria antolatu dute sagardotegian. Astigarragako Rezola sagardotegian bazkalduko dute. Elgoibartik, 8:00etan irtengo dira (Kalegoen plaza). Interesatuek otsailaren 14ra arteko epea dute izena emateko. Morkaikoko bazkide direnek 40 euro ordaindu beharko dituzte autobusa eta bazkariagatik, eta bazkide ez direnek 45 euro. Transferentzia bidez ordaindu nahi dutenek hauexek dituzte kontuak 2101 0036 69 0000380550 (Kutxa) edota 3035 0007 27 0071104751 (Euskadiko Kutxa). Ondoren, *morkaiko@morkaiko.net*-era bidali behar dira transferentziaren ordainagariak.

## EMAITZAK

**FUTBOLA**
Haundi 0 – Beasain 0 (3. maila)
Elgoibar 2 – Lazkao K.E. 1 (Neskak)
Soraluce 3 – Elgoibar 2 (Erregionala)
Elgoibar 5 – Kostkas Miren Bihotza 0 (Jubenila)
Eibar S.A.D. 1 – Elgoibar 2 (Kadete A)
Aurrera K.E. 1 – Elgoibar 1 (Kadete B)
Eibar 9 – Elgoibar 1 (Alebina)

**ESKU PILOTA**
Udaberri Txapelketa
Lagunak 8 – Azkoiti 22 (2. mailako jub.)
Lagunak 6 – Mundarro 22 (2.mailako kadeteak.)
Lagunak 14 – Intxurre 22 (3. mailako kadeteak)
Palaz
Lagunak 25 – Mundarro 16 (2. mailako nagusiak)

**ARETO FUTBOLA**
Pinsenque 3 – Concepto Egile 6 (2. B maila)

**ESKUBALOIA**
Alcorta Elg. 24 – Bidasoa 33 (Sen. mut.)
Saieko 23 – Gabaz 26 (Sen. mut.)
Lauko Elg. 34 – Aloña Mendi 16 (Jub. nesk.)
Astigarraga Elg. 25 – Aloña Mendi 15 (Kad. nesk.)
Leizaran 16 – Pneumax Elg. 31 (Kad. mut.)
Tecnifuelle Elg. 26 – Leizaran 10 (Sen. nesk.)
Alkideba Elg. 14 – Pulpo 13 (Aleb. nesk.)

## AGENDA

**FUTBOLA** (Mintxetan)
Zapatua, 26
10:00 Elgoibar – Ordizia (Ohorezko infantilak)
12:00 Elgoibar – Real Sociedad (Ohorezko kad.)
16:00 Elgoibar – Paisaia K.E. (Lehen m. kadetea)
Domekia, 27
16:30 Elgoibar – Eibartarrak (Erregionala)

**ESKUBALOIA** (Kiroldegian)
Zapatua, 26
11:30 Murgil Elg. – Aiala A (Inf. nesk.)
12:45 Cometel Elg. – Aiala B (Inf. nesk.)
17:30 Gabaz Elg. – Usurbil (Sen. mut.)
Domeka, 27
10:30 Alcorta Elg. – Gabaz Elg. (Sen. mut.)
11:45 Alkideba Elg. – Ordizia (Aleb. mut.)

**ESKU PILOTA**
Zapatua, 26
11:00 Lagunak (2) – Beloki (1.mailako nagusiak)
11:45 Lagunak (1) – Intxaurre (1. mailako nagusiak)

## LANA

**ESKAERA**

• Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 943 531 378 / 690 925 929
• Emakumea lan bila: umeak edo nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo sukaldari laguntzaile moduan aritzeko prest. ☎ 638 884 104
• Emakume arduratsua lan bila. Gauez, nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest, etxean zein ospitalean. Autoa daukat. ☎ 688 802 701
• Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. ☎ 660 041 099
• Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Orduka, eta gauez ere bai. ☎ 680 121 252
• Gizona baserriko lanak egiteko edo ezinduak zaintzeko prest. Etxean nahiz ospitalean. ☎ 688 812 845
• Emakumea eskaintzen da umeak edo adinekoak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko.
☎ 645 557 141
• Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Etxean nahiz ospitalean. Goizez, arratsaldez edota orduka. ☎ 660 551 781
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Etxean zein ospitalean.
☎ 699 609 190
• Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Paperak legez ditut. Esperientziaduna. ☎ 670 551 133
• Portalak garbitzen edo adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Orduka. ☎ 636 517 025
• Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Orduka, interna nahiz asteburuetan. ☎ 636 362 251
• Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Orduka, interna nahiz asteburuetan. ☎ 632 253 170
• Emakumea lan bila.
☎ 685 375 377 / 638 527 915 (Jakeline)
• Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. ☎ 605 720 298
• Gizona nagusiak zaintzeko edo baserrian zein tabernan lan egiteko prest. ☎ 686 077 316
• Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko.
☎ 646 821 678

## ETXEBIZITZAK

• Babes ofizialeko etxea salgai, Santa Ana kaleko promozioan. Hiru logela eta bi komun. 80m2, garajea eta trastelekua. Distribuzio ona. Hobekuntza batzuekin eta oso egoera onean.
☎ 650 344 428
• Etxea alokatzen dut Errosario kalean.
☎ 639 353 331
• Pisua hartuko nuke alokairuan.
☎ 608 474 923
• Etxea alokatzen dut Pedro Migel Urruzuno 8an.
☎ 943 741 275
• Neska batek etxea hartuko luke alokairuan. Premiazkoa. ☎ 686 420 642
• Etxea hartuko nuke alokairuan.
☎ 605 667 923

## BESTELAKOAK

• Eskumuturrekoa aurkitu dut Urazandin. Patri eta Denis izenak jartzen ditu.
☎ 669 681 995
• Azken hileko zapatuko ferian lepokoa galdu nuen. Txapa bat dauka eta Lucia jartzen du.
☎ 607 348 828

## KINTOAK

• 68an jaiotako elgoibartarrek kinto bazkaria egingo dute urtarrilaren 26an, Sigma jatetxean. 13:00etan batuko dira Ametsa tabernan, ondoren argazkia aterako dute, eta 14:00etan joango dira jatetxera. Interesatuek 50 euro sartu beharko dituzte kontu korronte honetan: 3035 0007 21 0071125749

## GARAJEAK / LOKALAK

• Garajea salgai edo alokairuan, Jausoron eta Lekuederren.
☎ 652 727 631
• Lokala alokatzen dut Erretxindin. 125m2. Gazteek erabiltzeko aproposa.
☎ 649 446 716
• Mendaro erdigunean lokal komertziala alokairuan. Guztiz egokitua, erakusleiho handiarekin. Merke.
☎ 686 045 321 (Marta)
• Garajea alokatzen dut Pista Beltzean. Leku onean dago, eta autoa bertan garbitzeko aukera ematen du.
☎ 679 843 332
• Garajea alokatzen dut Jausoron. Ate automatikoa eta giltz automatikoa.
☎ 663 409 726
• Lagun talde bat lokal bila dabil.
☎ 699 022 573

ESKERTZA

# ROSA KALZAKORTA GARAGARZA



*2013ko urtarrilaren 21ean hil zen,*
*92 urte zituela.*

*Agur hainbeste maite dugun*
*amama Rosa, maitea,*
*kostauko zaigu gure artean*
*ez zaudela sinistea*
*beti lagundu ta zaintzeko prest*
*zenuen borondatea*
*zuk ondo erakutsi diguzu*
*ona zer den izatea*
*eskerrik asko, amama Rosa*
*alai ta miresgarria.*

Zure familia





• Zorionak, **Garazi**, hilaren 26an 2 urte beteko dituzulako. Etxeko guztion partez.



• Zorionak, **Mikel,** asteazkenean 10 urte bete zenituelako. Etxekoen partez.



• Zorionak, **Arhane,** zure 10. urtebetetzean. Bereziki, Sugar, Goiatz eta Intzaren partez. Ondo-ondo pasa zure eguna!



• Zorionak, **Ion Maiztegi,** atzo 9 urte egin zenituelako. Ondo pasa! Muxuak, etxekoen partez.



• Zorionak **etxeko erregeari,** 3 urte egin dituelako. Muxu handi bat etxekoen, eta bereziki, gurasoen partez.



• Zorionak, **Markel,** hilaren 21ean zure urtebetetze eguna izan zelako. Aitatxo, amatxo eta familiakoen partez. Segi horrela! Muxu bat.



• Zorionak, **Malen,** 5 urte egin dituzulako. Muxu asko etxekoen, eta bereziki, lehengusina Nora eta Leireren partez.



• Zorionak, **Markel,** urtarrilaren 30ean 4 urte potolo egingo dituzulako. Familiakoen eta bereziki, Noraren partez.



• Zorionak gure marisorgintxo **Laiari**, bere bigarren urtebetetzean. Etxekoen partez. Paaaaaaaa!



• Zorionak, **Urko,** urtarrilaren 27an 12 urte egingo dituzulako. Arreba Izaroren, gurasoen eta familiako guztien partez.



• Zorionak, **Uxue eta Elur,** gaur eta igandean 5 urte beteko dituzuelako. Muxu asko familiakoen eta bereziki, lehengusuen partez.

**AGURREN ATALEKO PREZIOAK:**
Erretratu bakarreko agurra 4€. Argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

**ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:**
Erretratu bakarreko agurra 3 €. Argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguazten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira BARRENeko bulegora, 12:00ak baino lehen, edo *barren@elgoibarkoizarra.com* e-postara bidali.

---



ESKERTZA

## MARI LOPEZ MORANTE

2013ko urtarrilaren 22an hil zen, 90 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





I. URTEURRENA

## FLORENCIO ALONSO BISBAL

2012 urtarrilaren 25an hil zen.

***Nahiz eta urrun joan mundu honetatik***
***ez duzu alde egingo gure bihotzetatik.***

Familixiak



## 25 barixakua

### Erakusketa
**18:30 Gemma Monrealen erakusketa**
Kultur Etxeko erakusketa gelan egongo da ikusgai, otsailaren 17ra arte.

### Erakustaldia
**19:00 AMC lapikoen erakusketa**
AMC markako lapikoak nola erabili behar diren ikasteko saioa, Idotorbeko elkartean. Parte hartzeko 616 524 106 telefonora deitu behar da.

## 26 zapatua

### Bilera
**10:00 Sorturen eratze bilera**
Sorturen antolaketa ereduari buruzko batzarra, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

### Apustua
**11:30 Butano apustua**
Mendaroko udaletxe aurrean hasiko da.

### Karta jokoa
**16:30 Euskal Herriko mus txapelketa**
Euskal Herriko mus txapelketako Elgoibarko kanporaketa. Lanbroa tabernan.

## 27 domeka

### Kirola
**10:00 Morkaikora irteera**
Elgoibar Ikastolako gurasoek Morkaikora mendi irteera antolatu dute domekarako. Ikastolatik abiatuko dira.

## 30 astelehena

### Hitzaldia
**19:00 'Nola iritsi gara honaino'**
Haizea emakume taldeak antolatuta, Carmen Agirrek eskainiko du hitzaldia. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 31 martitzena

### Literatura
**18:00 'Sepharad'**
Antonio Muñoz Molinaren *Sepharad* liburua landuko dute. Udal Liburutegian.

## 1 barixakua

### Ikusentzunezkoa
**20:30 'Confidencias de un futbolisto'**
Zuhaitz Gurrutxagaren bakarrizketa, Herriko Antzokian.

## ZINEA

**'El chef, la receta de la felicidad'**
25, barixakua: 22:15
26, zapatua: 19:00/22:15
27, domeka: 19:00
28, astelehena: 21:30




**'El origen de los guardianes'**
26, domeka: 16:30




**'Terraferma' (Ongarri zinekluba)**
31, eguena: 21:30




**OKINDEGIA**

27 domeka:
**EIZAGIRRE**

Fernandez
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez
Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta
Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

**BOTIKA ORDUTEGIAK**
**9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00**

**GUARDIAK**

| | Egunez | Gauez |
|---|---|---|
| | 9:00 - 22:00 | 22:00 - 9:00 |
| 25 | Barrenetxea | Barrenetxea |
| 26 | Ibañez<br>Goizez: Yudego | Yudego |
| 27 | Ibañez | Yudego |
| 28 | Garitaonandia | Garitaonandia |
| 29 | Etxeberria | Etxeberria |
| 30 | Fernandez | Etxeberria |
| 31 | Yudego | Yudego |
| 1 | Zabaleta | Yudego |



**Urtarrilaren 31n**
**San Blas opilak**
egiten ikasteko aukera izango dugu!
17:30etik aurrera

Aste bukaera honetan
**Just Dance**
**Wii txapelketa,**
Gaztelekuan!
17:00etatik aurrera



# Gremioen GIDA

## Aroztegiak

**Asima**
Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

**Biena**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
*www.biena.es*
*info@biena.es*

**Imar**
Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

**Lodoso Leihoak**
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
*www.lodoso.es*

**Ulazia**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

## Igeltseritza

**E. Arandia**
Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04

## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

**Ibámar**
Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 531 847
☎ 647 463 436 (Floren)

**Ongi**
Pedro Muguruza etorbidea, 11 behea
☎ 943 254 522

**Pagoaga**
Biltegia eta tallerra
San Antolin, 13
☎ 943 740 279
Bulegoa eta erakusketa
Pedro Migel Urruzuno, 8
☎ 943 943 740 512
pagoagasa@euskalnet.net

**Pagoerrota**
Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 756 044/659 334 323

**Tellabide**
Azpilgoeta, 7 - Mendaro
☎ 943 755 062/607 755 062

**Santana Iturgintza eta Instalazioak**
Urasandi, 17
☎ 943 740 530/605 714 905
Faxa: 943 531 825

**Zubizarreta Instalazioak**
Ubitarte, 5 behea
☎ 943 740 789/650 586 144

## Elektrizitatea

**Carranza**
Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

**Azpeleta**
San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

**Joseba**
Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964

## Pinturak

**Biok dekorazioa S.L.**
Upaiz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

**Ku Kolorea**
Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87

Gremioen GIDA


ongi etorri
IKASTOLARA
P. M. Urruzuno Kooperatiba
elgoibar ikastola
Aurkezpen bilera irekia urtarrilaren 28an 19:00 IKASTOLAN
ikastolenelkartea
www.elgoibarikastola.net 943 744441 elgoibar@ikastola.net
ikain
Eskola Iraunkorraren Ziurtagiria
aurre-matrikulazioa
urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra
Kudeaketaren Kalitateari
2010